



GIPUZKOAKO ERIZAINZA ELKARGO OFIZIALA
COLEGIO OFICIAL DE ENFERMERÍA DE GIPUZKOA



CONSEJO GENERAL DE ENFERMERÍA

ELKAR EZAGUTUZ

ERIZAINZAKO BERRIKUNTZA ETA IKERKETAKO XV. JARDUNALDIA

Azaroak 18

Gipuzkoako Bazkundera eta online



Doako izen ematea:

www.coegi.org



943445672



Gipuzkoako Erizaintza Elkargo Ofizialak (COEGI) Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako kolegiatu guztiak gonbidatzen ditu Jardunaldi horietan parte hartzera, argitaratu gabeko lanak zein argitaratutakoak aurkezteko, 2021-10-08ra arte egin, aurkeztu edo argitaratu badira.

HELBURUAK

- Erizaintzaren gaineko Ezagutza partekatzeko foro bat ezartzea.
- Urtero sortzen diren Erizaintzako Ezagutzak profesionalei aditzera ematea.
- Aurkeztutako lanen artean onenak aintzatestea.

Aurkeztu ahal izango dira:

- Ikerketa zientifikoko proiektuak eta lanak.
- Erizaintza arloko irakaskuntza, laguntza edo kudeaketako proiektu eta esperientzia berritzaileak, hala nola. Kasu klinikoak, osasunerako heziketa, erizaintzako zainketak, jarduera profesionalari lotutako prozedura, protokoloak, gidak edo beste batzuk.

Lanak aurkezteko baldintzak:

- Lan zientifikoak metodologia kuantitatiboarekin, kualitatiboarekin edo mistoarekin formulatuta egongo dira.
 - Egitura zientifikoa izango da sarrera/justifikazioa, helburuak, materiala eta metodoak, emaitzak, eztabaida-ondorioak eta bibliografia.
 - Bibliografia APA edo Vancouver araudira egokituko da.
- Posterrak formatu digitalean aurkeztuko dira. Power Point bertikalean maketatuta. Letra neurria eta tipoa pantailan egoki ikusteko egokiak izango dira. Animazioko efekturik ez erabiltzea gomendatzen da.
- Gainerako lanetan hau adierazi ahalko da: sarrera/justifikazioa, helburuak, metodologia, kontsultatutako iturriak... edukia libreki egituratu ahal izango da.
- Sinatzen duten egileak gehienez ere 6 izango dira.

Lanak kategoria hauetan sailkatzen dira:

- **Ahozko komunikazioak.**
- **Posterrak eta komunikazio laburrak.**
- **Beste formatu batzuk, hala nola bideoak, App-ak, etab.**

Aurkezteko denbora hau izango da:

- 10 min: ahozko komunikazioetarako.
- 5 minutu posterra edo komunikazio laburrak aurkezteko.
- Beste formatu batzuetan aurkeztutako lanei dagokienez, Batzorde Zientifikoak erabakiko du denbora, eta egileei jakinaraziko die aldez aurretik.

Sari hauek ezarri dira:

- Ikerketa zientifikoko proiektu edo lanik onenaren ahozko komunikazioa (350 €).
- Erizaintzako asistentzia, heziketa edo kudeaketako proiektu edo esperientzia berritzaileen ahozko komunikaziorik onena (350 €).
- Poster, komunikazio labur edo beste formatu batzuen lanik onena (150 €)
- Publikoaren saria (350 €). Beste edozein sarirekin bateraezina izango da, eta hau egon daitezkeen besteei gailenduko zaie.

Urriaren 15aren aurretik lanen laburpen bat aurkeztuko da, gehienez 250 hitzekoa, Elkargoaren webgunean jarriko den txantiloia bitartez, adieraziz izenburua, argiratuta dagoen ala ez, zein kategoriatan aurkeztu den eta egileen izen-abizenak osorik.

Lanen testu osoak eta behin betiko aurkezpenaren fitxategiak (ppt, pptx, pdf, open office,...), baita poster elektronikoko osoak ere, info@coegi.org helbidera bidali behar dira, 2021eko azaroaren 5aren aurretik.

Esandako datarako entregatu den aurkezpen grafikoaren fitxategia izango da Jardunaldian proiektatuko dena. Izena emateko azken eguna: 2021eko azaroaren 12a.

AZALPEN OHARRAK:

- Batzorde zientifikoak baloratuko ditu lanaren garapena, berrikuntza, edukiaren originaltasuna eta erizaintzarako interesa, eta lanen aurkezpenaren kalitatea.
- Batzordeak aurkeztutako lanak onartzeko eskubidea du. Halaber, eskubidea du lan bakoitzari dagokion kategoria aldatzeko ere.
- Pertsona batek ezingo du jardunaldian lan bat baino gehiago aurkeztu, baina aurkezten diren beste lan batzuetan egilekidea izan daiteke. Aurkezpena, ahal dela, egile nagusiak egingo du.
- Lana aurkeztuko duen pertsonak Elkargoko kuotak ordainduta izan beharko ditu.
- Lana argitaratu gabea den ala ez adierazi beharko da. Lana argitaratuta bada, argitalpenaren lekua eta data, eta, aurkeztu bada, data eta zein biltzar, jardunaldi edo ekitalditan aurkeztu den.
- Posterrak jardunaldian zehar erakutsiko dira, formatu elektronikoan. Horiek defendatu beharko dira, aurkezpen grafiko baten laguntzaz, posterraren edukia osorik edo "zatituta" aurkeztuz, gehienez ere 5 gardenkitan.
- Halaber, komunikazio laburren aurkezpena gehienez ere 5 gardenkirekin egingo da.
- ardualdien behin betiko programa eta egiteko modua eta lekua COEGlren Informazio Buletinean eta webgunean jakinaraziko dira, urriaren erdialdetik aurrera.
- COEGIk lanak Elkargoaren hedabideetan argitaratzeko eskubidea erreserbatzen du.
- Sariak hutsik geratu daitezke, Batzorde Zientifikoaren iritzira.
- Batzorde Zientifikoak hartutako erabakia apelaezina izango da.

ZURE LANA EZAGUTU ETA ZABALDU NAHI DUGU. ANIMATU ZAITEZ ETA PARTE HARTU!!

Antolatzailea: Gipuzkoako Erizaintza Elkargo Ofiziala (COEGI).

Batzorde Zientifikoa: Gobernu Batzordeko kideak, ikerketa aholkulariak eta lanbidearen hainbat sektoretako elkargokideak.

Informazioa eta izen-emateak:



943445672



GIPUZKOAKO ERIZAINZA ELKARGO OFIZIALA
COLEGIO OFICIAL DE ENFERMERÍA DE GIPUZKOA



info@coegi.org

www.coegi.org



CONSEJO GENERAL DE ENFERMERÍA

Erizaintzako Kontseilu Orokorrak kofinantzatutako jardunaldia, estatuko erizainen artean ikerketa sustatzeko programaren esparruan (2021).